

Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako Eskolak bihar emango dio amaiera ikasturteari, balantze positiboa eginez

Carmen Valls Llobeten hitzaldi batek eta Rata Jones dj-ren emanaldiak jarriko diote amaiera bihar, 18:30ean, Montehermoson

Programazioak 30 lantegitik gora, 8 hitzaldi, 7 zine-foro, 3 irakurle klub eta aire zabaleko jarduerak eskaini ditu

Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako Eskolak bihar emango dio amaiera ikasturteari, “balantze positiboa eginez, bai parte hartu duten profesionalen kalitateari bai publiko fidelaren erantzunari dagokionez, urtez urte jarraitzen baitute Eskolak egindako eskaintza”, nabarmendu du Berdintasun zinegotzi Jaione Aguirrek.

Amaiera ekitaldia Montehermoson izango da, 18:30ean. Carmen Vals Llobetek “Herritar aktiboak eta emakumeek osasuna izateko duten eskubidea” hitzaldia emango du, eta Rata Jones dj-a ere arituko da.

Aurtengo programazioak 30 lantegitik gora, 8 hitzaldi, 7 zine-foro, 3 irakurle klub, mendi irteera bat eta beste jarduera batzuk eskaini ditu.

2011n sortu zenetik, Eskola haziz joan da, pertsona zein talde ezberdinek egindako proposamenak programazioan txertatuz, partaidetzan eta elkarlanean oinarritutako programa osatzeko. Bereziki adierazgarriak izan dira udal zerbitzuen eta Gasteizen feminismoaren eta berdintasunaren alde diharduten taldeen ekarpenak, eta benetan eskertzen diegu inplikazioa eta partaidetza.

“Azken programazioan gai gehiago eta formatu ezberdinak landu nahi izan ditugu, eta estrategia ildo ezberdinetan lan egiten saiatu gara, hala nola feminismoa; genero ikuspegia; emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa; kulturartekotasuna eta elkartasuna; kulturaren berdefinizioa; identitatea, subjektibotasuna eta kultur aldaketa, eta komunikazioa eta trebetasunak. Formatu ezberdinak eskaintzen saiatu gara, beharrianak eta egoerak askotarikoak baitira”, azaldu du Berdintasun zinegotzi Jaione Aguirrek.

Jarduera batzuk bakarrik emakumeentzat dira, emakumeen jabekuntzarako -banakakoa zein kolektiboa- kontzientziazio, topaketa eta ikasketa espazio propioak sustatzen jarraitu behar delako uste osotik abiatuta. Hala ere, Eskolak gizartearen sensibilizazioa areagotu nahi du, eta bereziki gizonen inplikazio handiagoa lortu. Hori dela eta, jardueretako batzuk berariaz emakumei edo gizoni zuzendutakoak dira, eta beste batzuk herritar orori, zein helburu lortu nahi den.

JARDUERAK OROTARA:

- 8 hitzaldi
- 7 zine-foro
- 3 irakurketa-klub
- 34 lantegi
- 2 jarduera berezi
- Hasiera ekitaldia
- Amaiera ekitaldia

La Escuela para la Igualdad y el Empoderamiento de las mujeres cierra mañana su curso con un balance positivo

Una conferencia de Carmen Valls Llobet y la actuación de la dj Rata Jones ponen el broche mañana a las 18:30 en Montehermoso

El curso ha ofrecido más de 30 talleres, 8 conferencias, 7 cine forum, 3 clubes de lectura y actividades al aire libre

La Escuela para la Igualdad y el empoderamiento de las mujeres cerrará mañana su curso con un balance “positivo tanto en la calidad de las profesionales que han participado como con la respuesta de un público fiel que año tras año apuesta por participar en la propuesta que realiza la Escuela”, destaca la concejala de Igualdad, Jaione Aguirre.

La conferencia “Ciudadanía activa y el derecho a la salud por parte de las mujeres” de la mano de Carmen Vals Llobet y la actuación de la dj Rata Jones pondrán el broche en Montehermoso, a partir de las 18:30 horas.

Este año la Escuela ha ofrecido 8 conferencias, 7 cine forum, 3 clubes de lectura, más de 30 talleres, una salida montañera y otras actividades.

Desde que comenzara en el año 2011 la Escuela ha ido creciendo e integrando en su programación las propuestas que, tanto personas como organizaciones, han hecho llegar para conseguir un programa participativo y colaborativo. Especialmente significativas han sido las aportaciones de los servicios municipales y de los colectivos que trabajan a favor del feminismo y la Igualdad en Vitoria-Gasteiz, agradeciéndoles muy sinceramente su implicación y participación.

“En esta última programación hemos tratado de mejorar la diversidad de temáticas y formatos de trabajo y hemos trabajado en base a diferentes líneas estratégicas (feminismo; perspectiva de género; prevención de la violencia contra las mujeres; interculturalidad y solidaridad; redefinición de la cultura; identidad, subjetividad y cambio de valores; y comunicación y habilidades), así mismo hemos intentado ofrecer diferentes formatos que den respuesta a la diversidad existente de necesidades y circunstancias que se plantean”, explica la concejala de Igualdad, Jaione Aguirre.

Convencidas de la necesidad de seguir potenciando espacios propios de concienciación, aprendizaje y encuentro entre las mujeres, es decir, espacios para el empoderamiento personal y colectivo, la Escuela plantea actividades dirigidas exclusivamente a mujeres. Sin embargo, la Escuela también pretende una creciente sensibilización de la sociedad en general, así como una mayor implicación por parte de los hombres en particular. Por ello, la Escuela presenta una programación cuyas actividades están dirigidas a mujeres, o a hombres, o a la sociedad en general, en función del objetivo que persiga cada una de ellas.

TOTAL ACTIVIDADES:

- 8 conferencias
- 7 cinefóruns
- 3 clubes de lectura
- 34 talleres
- 2 actividades especiales
- 1 acto de apertura
- 1 acto de cierre